DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Osasun Publikoa eta Animalien Ongizatea
Salud Pública y Bienestar Animal

Mandasko Dukearen Pasealekua, 12 | Tel. 943483878 | osasuna@donostia.eus | www.donostia.eus
20012 Donostia / San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

2023/045 esp.

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN (IKT) ERABILERARI, ONLINE NAHIZ AURREZ AURREKO JOKOARI ETA BIDEOJOKOEN ETA BESTE TEKNOLOGIA BATZUEN ERABILERARI LOTUTAKO ARRISKUEI BURUZ INFORMAZIOA ETA ORIENTAZIOA EMATEKO ZERBITZUA ARAUTZEKOA	**PLIEGOS DE CONDICIONES TÉCNICAS PARA EL SERVICIO DE INFORMACIÓN/ORIENTACIÓN EN RIESGOS ASOCIADOS AL USO DE TECNOLOGIAS DE LA INFORMACION Y LA COMUNICACION (TICs), AL JUEGO ONLINE Y PRESENCIAL, Y AL USO DE VIDEOJUEGOS Y OTRAS TECNOLOGÍAS**
1. Kontratuaren xedea Baldintza Teknikoen Agiri honen xedea da informazio eta komunikazio teknologien (IKT) erabilerari, jokoari (online-motakoa nahiz aurrez aurrekoa) eta bideojokoen erabilerari lotutako arriskuei buruz informazioa eta orientazioa emateko zerbitzua arautuko duten baldintza teknikoak ezartzea. Honela definitzen da aipatutako zerbitzua: helduak, gazteak eta adingabeak informatzeko eta orientatzeko zerbitzua, IKTen, jokoen (online eta aurrez aurrekoa) eta bideojokoen arloko arriskuei lotutako zailtasunei aurre egiteko ezagutzak eta trebetasunak eskura ditzaten.	**1. Objeto del contrato** El objeto de este Pliego de Prescripciones Técnicas (PPT) es regular las condiciones técnicas que regirán el Servicio para la Información/Orientación en Riesgos asociados al uso de Tecnologías de la Información y Comunicación (TIcs), juego (online y presencial) y videojuegos. Se define éste como un servicio para la información/orientación de adultos, jóvenes y menores con el fin de que adquieran conocimientos y habilidades para afrontar las dificultades relacionadas con los riesgos en el ámbito de las TICs, juego (online y presencial) y videojuegos
2. Hartzaileak Zerbitzua kolektibo hauentzat izango da: • Helduak (adinak axola ez diola), gazteak (18-25 urte) eta 18 urtetik beherakoak, arrisku-jokabideak saihesteko. • Gazte eta adingabeekin harremanak dituzten profesionalak, gurasoei eta gazte eta adingabeei orientazioa eman diezaieten. • Gurasoak edo tutoreak nahiz legezko arduradunak, beren seme-alabak edo beren tutoretzapekoak orientatzera bideratutako ezagutzak eta trebetasunak eskura ditzaten.	**2. Población destinataria** El servicio se dirigirá a los siguientes colectivos: • Los/as adultos de cualquier edad, jóvenes (18-25 años) y menores de 18 años, para evitar sus conductas de riesgo. • Los/as profesionales que se relacionan con estos jóvenes/menores, para que orienten a madres/padres y a los propios jóvenes/menores. • Las/los madres/padres o los tutores o responsables legales para que adquieran conocimientos y habilidades dirigidos a la orientación de sus hijos e hijas o, en su caso, tutelados.
3. Zerbitzua ematea	**3. Prestación del servicio**

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Enpresa esleipendunak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan emango du zerbitzua, nori zuzenduta dagoen:	La empresa adjudicataria prestará el servicio en euskera o en las dos lenguas oficiales, dependiendo a quién vaya dirigida:
- Euskaraz, D ereduko ikastetxeetako profesionalei.	- En euskera, a profesionales de centros de enseñanza del modelo D.
- Euskaraz eta gaztelaniaz, gainerako kolektiboei. Nolanahi ere den, bermatuta badago saioak ulertuko direla, euskaraz izango dira. Nolanahi ere, Enpresa esleipendunak modu proaktiboan jardungo du euskararen erabilerari dagokionez; beraz, beti euskaraz zuzenduko da eta erabiltzaileak aukeratutako hizkuntza ofizialean jarraituko du.	- En euskera y castellano, a los demás colectivos. En todo caso, cuando la comprensión esté garantizada, las sesiones se impartirán en euskera. La empresa adjudicataria actuará de forma proactiva en relación con el uso del euskera; por lo tanto, se dirigirá siempre en euskera y continuará en la lengua oficial elegida por la persona usuaria.
Enpresa esleipendunak lan hauek egin beharko ditu:	La empresa adjudicataria deberá llevar a cabo las siguientes tareas:
A) Aurrez aurreko informazio eta orientazioa.	**A) información/orientación presencial.**
Zerbitzu hau helduentzat (adinak axola ez diola), gazteentzat (18-25 urte) eta 18 urtetik beherakoentzat izango da, bai eta gazte eta adingabeekin harremanetan dauden profesionalentzat, gurasoentzat, tutoreentzat nahiz legezko arduradunentzat ere.	Se dirigirá a adultos de cualquier edad, jóvenes (18-25 años) y menores de 18 años, así como a los profesionales en contacto con estos jóvenes/menores, a profesionales en contacto con ellos y a madres/padres o, en su caso, a los tutores o responsables legales.
Enpresa esleipendunak material didaktikoak sortu eta aurrez aurreko saioak egin beharko ditu, talde bakoitzaren ezaugarrietara egokituta. Helduekin, gazte eta adingabeekin eta profesionalekin bi saio egin beharko ditu, eta gurasoekin edo legezko tutoreekin nahiz arduradunekin, saio bat.	La empresa adjudicataria deberá crear los materiales didácticos y llevar a cabo las sesiones presenciales ajustándose a las características de cada grupo. Con los adultos, jóvenes/menores y profesionales se deberán realizar dos sesiones y con las madres y padres o los tutores o responsables legales una sesión.
- **Profesionalekin eta heldu, gazte eta adingabeekin** egingo diren bi saioak honelakoak izango dira:	- Las dos sesiones de los **profesionales y/o adultos, jóvenes/menores** se desarrollarán de la siguiente manera:
• Lehenengo saioa. Enpresa esleipendunak sortu eta saioetan landu beharko duen edukia orokorra eta oinarrizkoa nahiz espezifikoa izango da (joko patologikoa, ziberbullinga, groominga, sexpredinga, sextortsioa, ziberdelituak, adikzioa eta antzekoak). Helduen, gazteen eta adingabeen erabilera eta ohituretan, arriskuetan, erronketan eta arrisku horiei aurre egiteko bitartekoetan esku hartuko du. Bestalde, enpresa esleipendunak Udalaren Online Plataforma aurkeztu beharko du.	• Primera sesión. El contenido que deberá crear y trabajar la empresa adjudicataria en las sesiones será general y básico o específico (juego patológico, ciberbulling, grooming, sexpreding, sextorsión, ciberdelitos, adicción o similares). Se intervendrá sobre los usos y hábitos de los adultos, jóvenes y menores, los riesgos, los retos y los medios para hacer frente a dichos riesgos. Asimismo, la empresa adjudicataria deberá presentar la Plataforma Online del Ayuntamiento.
• Bigarren saioa. Enpresa esleipendunak eduki praktikoak landu beharko ditu. Adierazi beharko du nola sartu Online Plataformara eta	• Segunda sesión. Deberá trabajar contenidos prácticos. La empresa adjudicataria deberá indicar la forma de acceso a la Plataforma Online y al material

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

profesionalek, gurasoek, tutoreek edo legezko arduradunek eta gazte nahiz adingabeek zer egin behar duten materiala eskuratzeko.	para los profesionales, madres/padres o los tutores o responsables legales y/o jóvenes/menores.
Saioek 90 minutuko iraupena izango dute. Gazte nahiz adingabeek osatutako talde naturalak sortuko dira ikastetxeetan, edo, gutxienez 15 heldu nahiz profesionalek osatuak.	La duración de las sesiones será de 90 minutos cada una y deberán constituirse grupos naturales de jóvenes/menores en los centros educativos o como mínimo de 15 adultos o profesionales.
- Bestalde, **gurasoekin** edo legezko tutoreekin nahiz arduradunekin egingo den saioan profesionalekin eta helduekin eta gazte nahiz adingabeekin lantzen diren eduki berak landu beharko dira, baina kontzeptuetan hainbeste sakondu gabe eta haien beharretan gehiago zentratuta.	- Por otro lado, en la sesión con **madres/padres** o los tutores o responsables legales se deberán trabajar los mismos contenidos que con los profesionales y adultos, jóvenes/menores pero sin profundizar tanto en los conceptos y centrándose más en sus necesidades.
Hasierako informazioa edo orientazioa jaso duten profesionalen zentro nahiz guneei, enpresak informazioa edo orientazio aurreratua eskaini beharko die, lehendik landutako edukiak zabaltzeko eta sakontzeko nahiz gai espezifiko bat lantzeko.	A aquellos centros o espacios que ya han hecho la información/orientación inicial, con los profesionales, la empresa les deberá ofrecer la información/orientación avanzada para ampliar y profundizar sobre los contenidos ya trabajados o trabajar un tema específico.
• Hasierako informazio edo orientazioaren nahiz gai espezifiko baten edukiak sakontzeko eta zabaltzeko <u>lehen saioa.</u>	• <u>Primera sesión</u> de profundización y ampliación de contenidos de la información/orientación inicial o de un tema específico.
• <u>Bigarren saioa</u>. Enpresa esleipendunak kasuei eta egoerei buruzko informazio eta orientazio praktikoa emango du. Bestalde, profesionalen, gurasoen eta gazte nahiz adingabeen esku jarriko ditu behar dituzten materialak.	• <u>Segunda sesión.</u> La empresa adjudicataria dará información / orientación práctica sobre casos y situaciones. Asimismo, facilitará los materiales para los profesionales, padres y madres, o jóvenes/menores
Saioek 90 minutuko iraupena izango dute, eta, gutxienez, 15 guraso edo profesionalek osatutako taldeak sortu beharko dira.	La duración de las sesiones será de 90 minutos cada una y deberán constituirse grupos de como mínimo de 15 padres/madres o profesionales.
<u>Metodologia</u>	<u>Metodologia</u>
Enpresa esleipendunak bi metodologia-mota aplikatu beharko ditu:	La empresa adjudicataria deberá aplicar dos tipos de metodologías:
• Presentziala: enpresak metodologia motibagarri, didaktiko, parte-hartzaile eta aktibo bat aplikatuko du.	• Presencial: la empresa aplicará una metodología didáctica, participativa y activa que sea motivadora.
• M-learninga: enpresak autoikaskuntzarako metodologia bat aplikatuko du; hala, profesionalek, gurasoek eta gazte nahiz adingabeek beren kasa	• M-learning: la empresa aplicará una metodología de autoaprendizaje, en la que tanto

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

erabakiko dute zer interes landu nahi dituzten, zer erritmo eramango duten ikasteko eta zenbat denbora emango duten zeregin horretan.	los/as profesionales, madres/padres o jóvenes/menores determinen de manera autónoma sus intereses, sus ritmos de aprendizajes y el tiempo dedicado.
Edukiak	Contenidos
Enpresa esleipendunak kontratu honen xede den kolektibo bakoitzean (profesionalak, gurasoak eta gazte nahiz adingabeak) hautemandako beharretara egokitu beharko ditu landu beharreko edukiak, besteak beste:	La empresa adjudicataria deberá ajustar a las necesidades detectadas en cada colectivo objeto de este contrato (profesionales, madres/padres y jóvenes/menores) los contenidos a trabajar, entre los que se pueden encontrar:
• Interneta/Sare sozialak.	• Internet/Redes Sociales.
• Netiketa.	• Netiqueta.
• Pribatutasun eta identitate digitalak.	• Privacidad e identidad digitales.
• Arrisku eta babes faktoreak.	• Factores de riesgo y de protección.
• Pentsamendu kritikoa.	• Pensamiento crítico.
• Gazte eta adingabeek Interneti ematen dioten erabilerari buruzko datuak.	• Datos sobre el uso de Internet en jóvenes/menores.
• IKTen erabilerarekin lotutako arazoak (ciberbullynga, groominga, sexpredinga, sextortsioa, ziberdelituak...).	• Problemas relacionados con el uso de las TICs (Ciberbullyng, grooming, sexpreding, sextorsión, ciberdelitos...).
• Legeak.	• Legislación.
• Prebentzioa eta esku-hartzea. Erabilera arduratsua izaten laguntzeko, gidatzeko eta orientatzeko estrategiak (arauak eta mugak).	• Prevención e intervención. Estrategias para acompañar, guiar y orientar hacia el uso responsable (reglas y límites).
• Norberaren erabilerari buruzko autogogoeta.	• Autoreflexión sobre el propio uso.
Udalaren Online Plataformaren bidez, kolektibo bakoitzari emango zaio behar duen material espezifikoa. Material hori aurrez aurreko saioetan parte hartu duten pertsonek nahiz parte hartu ez dutenek eskuratu ahal izango dute. Helduentzako eta gazte nahiz adingabeentzako materialak ere eskainiko dira Plataforman.	Desde la Plataforma Online del Ayuntamiento se facilitará el material específico para cada colectivo. A este material podrán tener acceso tanto las personas que hayan participado en las sesiones presenciales como las que no lo hayan hecho. También ofrecerá materiales tanto para los adultos como para los jóvenes/menores.
Landu beharreko gaiak Udalaren Adikzioak eta Droga-Mendekotasunak Prebenitzeko Atalak aukeratuko ditu, erreferentzia hauek kontuan izanda: aurretik egindako aholkularitza-lanak, hautemandako beharrak eta identifikatutako arrisku	La elección de los temas a trabajar dependerá de la Sección de Prevención de Adicciones y Drogodependencias municipal que tendrá como referencia factores como asesoramientos

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

espezifikoak.	anteriormente realizados, detección de necesidades o riesgos específicos identificados
Antolaketa-alderdiak eta informazioaren eta orientazioaren plangintza	Aspectos organizativos y planificación de la información/orientación
Donostiako Udaleko Adikzioen eta Droga-Mendekotasunen Atalak aldez aurretik planifikatuko du informazioa edo orientazioa zentro edo kolektibo bakoitzarekin. Enpresa esleipendunak honela gauzatuko du informazioa edo orientazioa emateko eginkizuna:	La Sección de Adicciones y Drogodependencias del Ayuntamiento de San Sebastián planificará previamente esta información/orientación con cada centro o colectivo. La empresa adjudicataria la deberá ejecutar del siguiente modo:
• Egutegia zentro edo kolektibo bakoitzarekin egokituko du.	• Ajustará con cada centro/colectivo el calendario.
• Aldez aurreko ebaluazioak egingo ditu, esku-hartzea egokitzeko.	• Realizará evaluaciones previas para ajustar la intervención.
• Saioak egingo ditu.	• Desarrollará las sesiones.
• Udalaren Online Plataformako materialak eskuratzeko aukera emango die parte-hartzaileei.	• Proporcionará y facilitará a los/as participantes el acceso a los materiales en la Plataforma Online del Ayuntamiento.
• Parte-hartzaileen parte-hartze eta gogobetetasun maila ebaluatuko ditu.	• Evaluará el nivel de participación y de satisfacción de los participantes.
• Aurrez aurreko informazio edo orientazioa parte-hartzaileen zentroan nahiz esparruan emango da.	• La información/orientación presencial se llevará a cabo en el centro/espacio de los/as participantes.
B) Udalaren Plataformaren bidezko aholkularitza.	**B) Asesoramiento a través de la plataforma del Ayuntamiento.**
Profesionalek, gurasoek eta heldu, gazte eta adingabeek kontsultak egiteko aukera izango dute, Udalaren Plataformaren bidez. Enpresa esleipendunak aditu bat izendatuko du kontsulta horiei, gehienez ere, astebeteko epean erantzuteko.	Los/as profesionales, los padres/madres y los adultos, jóvenes/menores tendrán la posibilidad de realizar consultas mediante la plataforma del Ayuntamiento. La empresa adjudicataria deberá designar a un/a experto/a para dar respuesta a estas consultas en un plazo máximo de 1 semana.
C) Zerbitzuaren berri zabaltzea:	**C) Difusión del Servicio:**
Enpresa esleipenduna behartuta egongo da zerbitzuaren berri zabaltzera, egokitzat jotzen dituen bitartekoen bidez, Zerbitzuaren eskatzaile kopurua handitzeko eta, horrela, erabiltzaile gehiagori Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT), jokoaren (online eta aurrez	La empresa adjudicataria estará obligada a realizar la difusión del Servicio, mediante los medios que estime oportunos, con el objetivo de aumentar el número de solicitantes delServicio y, así, informar/orientar en Riesgos asociados al uso de Tecnologías de la

aurrekoa) eta bideojokoen erabilerari lotutako arriskuei buruz informatzeko eta orientatzeko. Zabalkundea ikastetxeetan, online eta gazteak nahiz adingabeak egon ohi diren lekuetan egin beharko da, ahoz eta idatziz, paperean eta modu telematikoan. Zabalkundea bi hizkuntza ofizialetan egingo da, euskarari lehentasuna emanez. Enpresa lizitatzaileek zerbitzuaren berri zabaltzeko proposatzen dituzten baliabide zehatzak baloratu egingo dira (Administrazio Klausula Partikularren Agiriaren ezaugarri-taulako 19.1 ataleko A.3. irizpidearekin bat).	Información y Comunicación (TICs), juego (online y presencial) y videojuegos a un mayor número de usuarios. La difusión se deberá realizar en los centros escolares, online u en otros lugares donde habitualmente hay jóvenes/menores. Podrá realizarse de manera verbal y/ o escrita, en papel y/o de manera telématica. La difusión se realizará en las dos lenguas oficilaes, dando prioridad al euskera. Los medios concretos que las empresas licitadoras proponen para llevar a cabo la difusión del Servicio serán objeto de valoración (según el criterio A.3. del apdo. 19.1 de la tabla de características del PCAP).
4. Zerbitzua emateko tokia Zerbitzua Donostian bakarrik eman beharko da, Adikzioak eta Droga-Mendekotasunak Prebenitzeko Udalaren Atalak adierazitako zentroetan (informatu nahiz orientatu beharreko kolektiboaren esparru naturalean) eta Online Plataforman. Zentroak, batez ere, ikastetxeak izango dira; hala ere, Adikzioak eta Droga-Mendekotasunak Prebenitzeko Udalaren Atalak hala eskatuta, gazteak nahiz adingabeak egon ohi diren beste zentro edo zerbitzu batzuetan ere eman beharko da zerbitzua.	**4. Lugar de prestación.** El servicio se deberá prestar exclusivamente en Donostia / San Sebastián, en los centros indicados por la Sección de Prevención de Adicciones y Drogodependencias municipal para participar del servicio (en el espacio natural del colectivo a informar/ orientar), y en la plataforma online. Los centros serán, principalmente, centros escolares; no obstante, de manera indirecta, a petición de la Sección de Prevención de Adicciones y Drogodependencias municipal también deberá prestarse en otros centros o servicios donde habituen los jóvenes/menores.
5. Enpresa esleipendunaren betebeharrak • Zerbitzua, onartutako baldintza tekniko, ekonomiko eta denborazkoak errespetatuta gauzatuko da. • Kontratutik eratorritako lan teknikoa agiri tekniko hauetan eta administrazio-agirietan ezarritako baldintzak betez egin beharko da. • Lan-harremana aitortzeko erabakigarritzat har daitezkeen ekintzak saihestu beharko dira (langileen legez kanpoko lagapena). • Enpresa esleipendunak, gutxienez, ordenagailu finko bat eta eramangarria den beste bat izan behar ditu.	**5. Obligaciones de la empresa adjudicataria** • El Servicio se desarrollará en las condiciones técnicas, temporales y económicas aprobadas. • Ejecutar la labor técnica derivada del contrato de conformidad con lo establecido en los presentes Pliegos Técnicos y en los Pliegos Administrativos. • Evitar actos que pudieran considerarse como determinantes para el reconocimiento de una relación laboral (cesión ilegal de trabajadores). • La empresa adjudicataria deberá disponer de al menos un ordenador fijo y otro portátil.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

• Lana egiteko behar den bulegoko material inprimatu eta suntsikor guztia ere enpresa esleipendunak jarri behar du.	• La empresa adjudicataria también deberá aportar todo tipo de material impreso y fungible de oficina que sea necesario para la actividad.
• Enpresa esleipendunak telefoniaren, interneten, aplikazio informatikoen eta haien mantentze-lanen kostuak ordaindu beharko ditu, bai eta zerbitzua ematean sortzen diren beste kostu guztiak ere.	• Los costes de telefonía, internet, aplicaciones informáticas y su mantenimiento, etc. o cualesquiera otros que se generen en la prestación del servicio correrán a cargo de la empresa adjudicataria
• Enpresa esleipendunak Donostiako Udaleko Adikzioen eta Droga-Mendekotasunen Atalak eskatzen dion informazio guztia eman beharko du.	• La empresa adjudicataria deberá aportar cuanta información sea requerida por la Sección de Adicciones y Drogodependencias del Ayuntamiento de San Sebastián.
• Enpresa esleipendunak Donostiako Udaleko Adikzioen eta Droga-Mendekotasunen Atalak planteatzen dituen proposamen tekniko guztiei erantzun beharko die.	• La empresa adjudicataria deberá responder cuantas propuestas técnicas se planteen desde la Sección de Adicciones y Drogodependencias del Ayuntamiento de San Sebastián
• Enpresa esleipendunak, gutxienez, profesional bat izendatu beharko du informazioa nahiz orientazioa emateko, eta beste bat, koordinazio-lanak egiteko.	• La empresa adjudicataria deberá designar como mínimo a un/a profesional para la información/orientación y otra para la coordinación.
Informazioa eta orientazioa emango duen pertsonak, gutxienez, hiru urteko esperientzia izan behar du IKTei, jokoari (online eta aurrez aurrekoa) eta bideojokoei buruzko informazioa nahiz orientazioa ematean profesionalei, gurasoei nahiz gazte eta adingabeei.	La persona que realizará la información/orientación tiene que tener como mínimo tres años de experiencia en información/orientación en TIC-S, juego (online y presencial) y videojuegos con profesionales, madres/padres o jóvenes/menores
Programan parte hartzen duten profesionalen koordinazio-eginkizunak betetzeko izendatutako pertsonak, gutxienez, hiru urteko esperientzia izan beharko du Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT), jokoaren (online eta aurrez aurrekoa) eta bideojokoen erabilerak dituen arriskuei buruzko informazioari nahiz orientazioari lotutako lanetan, gazte eta adingabeekin, haiekin harremanetan dauden profesionalekin eta/edo gurasoekin egindakoetan, hain zuzen. Koordinatzailea izango da Donostiako Udalaren solaskide bakarra, eta hark izango du enpresa esleipenduneko gainerako langileei laneko aginduak eta jarraibideak zuzenean emateko eginkizuna.	La persona designada para realizar funciones de coordinación de los profesionales que participen en el programa deberá tener experiencia de al menos tres años en trabajos relacionados con la Información/Orientación en Riesgos asociados al uso de Tecnologías de la Información y Comunicación (TIcs), juego (online y presencial) y videojuegos con jóvenes/menores, profesionales en contacto con ellos y/o padres y madres. Esta persona coordinadora será la interlocutora única con quien se relacionará el Ayuntamiento de San Sebastián y a quien corresponderá la facultad de impartir directamente las órdenes e instrucciones de trabajo al resto de trabajadores de la empresa adjudicataria.
Era berean, koordinatzaileak izango ditu kontratatu beharreko jarduerarako enpresari dagozkion antolaketa ahalmenak eta eskumenak, bai eta enpresa izateak dakartzanak ere, batez ere soldatak ordaintzea, negoziazio kolektiboa, baimenak onartu	Asimismo, el/la coordinador/a ejercerá las facultades y competencias organizativas empresariales necesarias para la actividad a contratar, y las derivadas de la condición de empresa, en especial para el pago de salarios, negociación colectiva, autorización y

eta ematea eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzea.	otorgamiento de permisos y cumplimiento de obligaciones tributarias y de Seguridad Social.
• Enpresaren koordinatzaileak jarraipen eta koordinazio bileretan parte hartu beharko du, Donostiako Adikzioen eta Droga-Mendetasunen Atalak hala eskatzen badio.	• El/la coordinador/a de la empresa deberá participar en las reuniones de seguimiento y coordinación a solicitud de la Sección de Adicciones y Drogodependencias del Ayuntamiento de San Sebastián.
• Esleipendunak berak zuzendu eta kudeatu beharko du kontratua, eta erantzukizun hauek izango ditu: zerbitzuaren antolaketa, egiten dituen lanen kalitate teknikoa eta ematen dituen prestazio eta zerbitzuak; horretaz gain, bere gain hartzen du enpresa-arriskua.	• La adjudicataria deberá aportar su propia dirección y gestión al contrato, siendo responsable de la organización del servicio, de la calidad técnica de los trabajos que desarrolle y de las prestaciones y servicios realizados y que asume el riesgo empresarial.
• Zerbitzuari atxikitako langileak zuzentzea eta haiek behar bezala funtzionatzea ere esleipendunaren eskumen esklusiboak izango dira. Udalak ez du inolako zuzendaritza-ahalmenik izango kontratua aurrera eramango duten enpresako langileen gainean: ez du ez langileak hautatzeko gaitasunik izango, ez eta langileen oporrak, baimenak eta lan-ordutegiak ezartzekorik ere.	• El poder de dirección y funcionamiento del personal adscrito al servicio será competencia exclusiva del adjudicatario. El Ayuntamiento no ostenta poder de dirección alguna sobre los trabajadores de la empresa contratista destinadas a la ejecución del contrato: no tendrá capacidad para seleccionar trabajadores, ni para fijar las vacaciones y permisos de su personal, ni horario laboral alguno.
• Enpresa esleipendunak, zerbitzua nola gauzatu den ebaluatzeko, memoria-txosten bat egin beharko du urtero, eta, bertan, jardun proposamen batzuk jasoko ditu. Memoriak datu hauek jaso beharko ditu: - Estaldura: kasu egindako pertsona-kopurua, eta zer kolektibotakoak ziren. - Prozesua: kasu egindako talde-kopurua, egindako saio-kopurua, saioetako hizkuntza, eta esku-hartzeen guztizko iraupena. - Emaitzak: parte-hartze eta bertaratze maila. Urteko memoria bi hizkuntza ofizialetan idatziko da, euskarari lehentasuna emanda.	• La empresa adjudicataria deberá elaborar un informe memoria anual evaluativo sobre el desarrollo del Servicio, con propuestas de actuación. La memoria deberá recoger los siguientes datos: - Cobertura: nº de personas atendidas y colectivo al que pertenecen. - Proceso: nº grupos atendidos, nº sesiones llevadas a cabo, lengua en la que se ha impartido, duración total de las intervenciones. - Resultados: nivel de participación y asistencia. La memoria anual se redactará en las dos lenguas oficiales, dando prioridad al euskera.
6. Adikzioak eta Droga Mendekotasunak Prebenitzeko Udal Atalaren eskumenak Honako eskumenak ditu Donostiako Udaleko Adikzioen eta Droga Mendekotasunen Atalak: • Kontratua aurrera eramateko behar den informazioa ematea enpresa esleipendunari.	**6. Competencias de la Sección de Prevención de Adicciones y Drogodependencias municipal** Corresponderá a la Sección de Adicciones y Drogodependencias del Ayuntamiento de San Sebastián: • Aportar información necesaria para la ejecución del contrato a la empresa

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

• Hilean behin, Zerbitzuaren koordinazio eta jarraipen bilerak egiteko deia egitea. • Kontratatutako zerbitzua hobetzeko edo haren helburuak betetzeko birbideratu behar diren jarduera guztiak birbideratzea. • Zerbitzua aurrera eramateko ezarritako jarduerak edo metodologia ez badira aurreikusita bezala betetzen, Atalak erabakiko du orientazio berria ematea eta beharrezko zuzenketak egitea. • Arrisku-egoerak edo gai espezifikoak lantzeko beharrak detektatzea, hala nola joko patologikoa, ziberbullinga, grooming, sexpredinga, sextortsioa, ziberdelituak, adikzioak..., eta horiek zerbitzuan txertatzea. • Erabakiak hartzea, enpresak aurkeztutako informazioa ikusita, lan-ibilbidearen hiru momentutan: - Xede-taldeak hautatzea. - Landu beharreko gaiak (behar espezifikoak baloratzea). - Aldaketak eta egokitzapenak esku-hartzean eta plataforman.	adjudicataria. • Convocar con periodicidad mensual reuniones de coordinación y seguimiento del Servicio. • Reorientar cualquier actuación de cara al cumplimiento de los objetivos o mejoras del servicio contratado. • En el caso de que las actividades o metodología establecidos para el desarrollo del servicio no lleguen a cumplirse según lo previsto, la Sección decidirá la nueva orientación y las correcciones que sean necesarias. • Detectar situaciones de riesgo o necesidades de trabajar temas específicos como el juego patológico, ciberbulling, grooming, sexpreding, sextorsión, ciberdelitos, adicción,... e incorporarlos al servicio. • Tomar decisiones, ante la información presentada por la empresa, en tres momentos del itinerario de trabajo: - Elección de grupos diana. -Temario a trabajar (valorar necesidades específicas). - Modificaciones y ajustes en la intervención y en la plataforma.
7. Ebaluazio eta kontrol sistema Ebaluazioaren bidez, lanaren eraginkortasuna baloratu nahi da, eta hobetu beharreko alderdiak identifikatu. Ebaluazioa momentu batean baino gehiagotan eta helburu batekin baino gehiagorekin egingo da. Hiru ebaluazio-motak Donostiako Udaleko Adikzioen eta Droga Mendekotasunen Atalak egingo ditu, enpresa esleipendunaren koordinatzailearekin batera, kontratatutako enpresari agindutako lanak behar bezala kontrolatzeko. Hileko ebaluazioa: Ekintza honen bidez, enpresak planifikatutako taldeen betetze-maila neurtuko da, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen Prebentziorako Atalak gainbegiratuta. Prozesuaren ebaluazioa: Balorazio hau ikasturtean egingo diren jarraipen eta koordinazio bileretan egingo da, bai eta «in situ» ere, diseinatutako taldeetan, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen Prebentziorako Atalak beharrezko jotzen duenean.	**7. Sistema de evaluación y control.** Mediante la evaluación, se pretende valorar la eficiencia del trabajo e identificar aspectos a mejorar. La evaluación se producirá en diferentes momentos y con diferentes objetivos. Los tres tipos de evaluación serán efectuados por la Sección de Adicciones y Drogodependencias del Ayuntamiento de San Sebastián junto a la/el Coordinador/a de la empresa adjudicataria, para el control efectivo de los trabajos encomendados a la empresa contratada. Evaluación mensual: Mediante esta acción se medirá el nivel de cumplimiento de los grupos planificados por parte de la empresa, bajo supervisión de la la Sección de Prevención de Adicciones y Drogodependencias municipal. Evaluación procesual:Esta valoración se llevará a cabo en las reuniones de seguimiento y coordinación que se realizarán durante el curso escolar, e "in situ" en los grupos diseñados que considere necesario la Sección de Prevención de Adicciones y

Ebaluazioaren fase honen helburua da jardueran sortzen diren zailtasunak edo interesak identifikatzea eta egin behar diren aldaketak egitea. Azken ebaluazioa: ebaluazio hau ikasturtearen amaieran egingo da, eta zerbitzua nola gauzatu den ebaluatzeko egindako urteko memoria-txostena izango du oinarri, kontratatutako enpresak egiten dituen jarduera-proposamenekin batera.	Drogodependencias municipal. En esta fase de evaluación se pretende identificar las dificultades o intereses que surgen durante la acción e introducir los cambios necesarios. Evaluación final:Esta evaluación se realizará al final del curso escolar y se hará sobre el informe memoria anual evaluativo del desarrollo del Servicio, junto con las propuestas de actuación que proponga le empresa contratada.
8. COVID-19ak edo beste edozein izurri-egoerak eragindako osasun-alarma: Enpresa esleipendunak beti errespetatu beharko ditu Gobernuak (Espainiako Gobernua, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia edo Donostiako Udala) COVID-19a edo beste edozein izurriteren zabalkuntza geldiarazteko hartzen dituen osasun-neurriak (segurtasun-tartea, gehieneko edukierak, osasun-produktuen erabilera, konfinamendu-neurriak eta abar).	**8. Referencia a la situación de alarma sanitaria del covid-19 o cualquier otra situación epidémica:** La empresa adjudicataria deberá respetar, en todo momento, las medidas sanitarias que el Gobierno (Gobierno de España, el Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Gipuzkoa o el Ayuntamiento de San Sebastián) adopte para frenar la expansión del covid-19 o cualquier otra situación epidémica: tales como, distancia de seguridad, aforos máximos, uso de productos sanitarios, medidas de confinamiento, etc.

Donostian, 2023ko maiatzaren 22an

OSASUN PUBLIKOAREN ETA ANIMALIEN ONGIZATEAREN ZERBITZUAREN BURUA / EL JEFE DEL SERVICIO DE SALUD PÚBLICA Y BIENESTAR ANIMAL

Izpta. / Fdo.: Sergio Fernández Unanue

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Lege Zuzendaritza - Dirección Jurídica

Tokiko Gobernu Batzarrak onartua.
Aprobado por la Junta de Gobierno Local.

2023 UZT.

Batzordeko idazkaria,
El/La secretario/a de la Junta,